

Katxolako dolarea badabil

Aiete » Duela pare bat astetik badabil Katxolako dolarea; Muntoko piezekin osatu dute

RAUL PEREZ

2001ean lekuz aldatu zuten Katxola baserria, harriz harri. Miramonetik Oriamendira. Baserria dotore geratu zen Paraiso kalean, baina dolarea ez zegoen osoa. Orain bai. Osoa eta martxan, ibilazaitute.


Lantxabe Auzo Elkartearen ekimenez, eta besteak beste Josu Tellabide eta Asier Agirresarobe etnografoen eta Manu Izagire Foru Aldundiko ondare sailleko kideen zuzendaritzapean Muntoko dolareko zati batzuk erabili dituzte Katxolako berritzeko. Costan Sagastume zaharberritzaileak gidatu ditu lanak. Duela bi aste bukatu zituzten eta dolarea abian jarri dute. Tellabide oso pozik dago azken emaitzarekin, lan nekeza izan bada ere. «Katxolaren ezaugarri lotuta jardun gara, nolabait esateko. Ezusteko asko izan dira, eta bat batean erabakiak hartu behar izan ditugu». Katxolako dolara Muntotik ekarritako piezekin osatu dute. Adibidez, Muntoko motorra eta ardatza -500 kilokoa da eta hori dela eta, polea bitartez jarri behar izan zuten. Zati batzuk, jatorrizko dolaretik, Katxolakotik alegia, hartu dituzte. Hori bai, Katxolako dolareak zuten itxurari eutsiz.

Beheko solairuak sagardotegi itxura izango du

Dolarea Katxolako goiko solairuan jarrita dago. Behekoan, bestalde, Muntotik ekarritako kupelak eta beste hainbat tresna daude, saskiak eta ardo txanbila, esate baterako. 50eko hamarkadako sagardotegiek zuten itxura eman nahi izan diote Katxolako beheko solairu horri. Zenbait tresna kimikoki tratatu dituzte, pipiaren kontrako produktuekin. Apirilera bukatu nahi dituzte lanok, ondo-

ren zenbait egunetan egindako lanak ezagutzera emateko, eta udazkenean sagardoa egingo dute. Kupela zaharrak dekoraziorako mantenduko dituzte toki horretan, baina horretaz gain, beste kupel batzuk jarriko dituzte sagardoa edan ahal izateko.

Hasieran, kristal bat jarri nahi zuten 50eko hamarkadako sagardotegi itxura izango duen aldea eta beheko solairuaren beste zatia bereizteko, baina azkenean, antza, ez dute ezer jarriko.



Oso-osorik dago Katxolako dolarea. RAUL PEREZ

Gozatu

BERRIAREN HARPIDEDUN izatearen abantailez

BERRIAREN harpidedun egin zaitez

eta **lortu doan*** sukaldeko plantxa hau:



PRINCESS
sukaldeko plantxa

Ezagutu BERRIAREN harpidedun
izatearen abantailak:

- BERRIA, kloskoan baino %10 merkeago lortuko duzu.
- BERRIA, goizeko 08:00ak baino lehenago etxean, lantokia, kloskoan... izango duzu.
- Gure promozioetan (liburuak, disko bildumak, mendiko gidak...) abantaila berezietz gozatzeko aukera izango duzu.
- Astero-astero harpidedunen artean opariak banatzen dira, eta zozketan parte hartu ahal izango duzu.

Deitu: **943-30 43 45** telefonora edo

idatzi harpidetza@berria.info helbidera.

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

* urte osoko harpidetza berrientzat.



Muntoko saskiak eta ardo-txanbilak daude Katxolan. RAUL PEREZ

» DATUAK

- **Katxola.** Miramonetik harriz-harri eraman zuten Oriamendi pasealeku ingurura, Paraiso kalera.
- **Munto.** Hutsik dago duela zenbait urtetik eta duela urtebete bertako ondarea atera eta Katxolara eraman zuten.
- **Lanak.** Katxolako dolarea osatu dute Muntoko motorra eta ardatza jarrita.
- **Muntoko piezak.** Katxolako beheko solairuan Muntoko kupelak, saskiak, edari kaxak eta kupelaren pieza batzuk altxatzeko katua.